

MIKELAZULO

MIKELAZULOREN POESIA

Mikelazulo zer da? Iradokizun eta oroime-
nez beteriko taberna magikoa? Bertaratzen
direnen nahi eta amets batzuren elkarte era-
ginkorra? Liburutegia? Zinema? Irudiaren artis-
ten galeria? Herrien astea? Bidaia? Espaloie-
tan oinutsik? Lagunen arteko solasaldia? Xake
partida? Hitzaldia?... Hori dena da eta guzti
horren muinean Mikelazuloren ahalegina: ber-
tako sormenari bidea egin eta hurbiltzen dire-
nen gozamenerako okasioa sortu.



Horixe da Mikelazuloren poesia. Zer da
poesia? Hitzaren bidez haragia hartzen duen
edertasunaren sortzearen ekintza. Eta Mikelak
baditu bere hizkuntzak: Mikelazuloren espa-
zioan egonean dauden eta mantso aldatzen
doazen mahai, lanpara, argi, irudi, munduko
lau ortzimugetako oroigarriak... eta Mikelazu-
loren denboran ekinaren eginez agertu eta
joan egiten diren ekimen ugariak. Horiek dira
erabiltzen dituen hizkuntzak, eta oraindik sako-
nago, hizkuntza horien muinean harreman bizi-
garriak elkarri esanez: "laguna: ausart zaitetz",
"aitzakarik ez dugu".

Horrela bada, aurten, beste hamaika eki-
menen artean, eta poeta gaztez osaturiko
sarea guren bildu denez, hitzez egindako poe-
sia berriari eman diogu bide eta ibilbidea.

Mikelazulo elkarteak akordio berezi bat egin
du aurten poesiarekin:

BESTE BAT APALERAKO

Liburu bat da. Xume eta ederra. Bertan ikusi
ahal izango duzu, besteak beste: Itxasazpiko
lurralde ezezagunen barna abiatuiko begi
handiko arraiak; lurrian ia pausatzen ez den
makil-kaktusa; ohean eserita pentsakor dagoen
mutila; amets zurrunbiloan batzen diren gizon

eta emakumea; baso-
ko argi fantastikoan
murgilduriko haur ibil-
taria; gi gizon pentsa-
kor; lurretik altxatzen
den eta inon euskarri-
rik ez duen esku indar-
tsua; amonia denbora-
ren mugetatik kanpo;
iluntasunean ikusi nahi
duen begia; zurubian
gora zerura abiatu
den neska; bi itzalen
besarkada lizuna...
eta bertan irakurri
ahal izango duzu 11
poeten lan bikaina.

AZKEN OSTEGUNE- AN

Hilabete bakoitzeko azken osteguna poeta
gazte eta poema sortu berrien irakurketak egin
dira Mikelazulon. Herriko hainbat lekutan poe-
sia-buzoiak jarri dira eta nahi izan duenak ber-
tan utzi du bere poesia eta aipatu ostegunetan
irakurri izan dira. Horietako batean poesiaren
maitale ere baden eta emanaldietara fin azal-
tzen den Inaxio Albisuri neska ezezagun batek
egin zion koadro bat oparitu zitzaion.

LETREN KILIMA

Martxoko azken ostegunean esperimendu
berri bat burutu zen: Mikelan, 50 bat lagunen
konpainia ederrean, irudi sorta ikusi, eta saxo,
gitarra elektrikoa, biolina eta kontrabajoa
banaka jotako piezak entzun ondoren, han
bertan egindako poemak irakurri ziren.

POESIAREN ASTEA

Eresbil Artxibategi Nazionalaren egoitza berriaren inaugurazioaren karirat eta beraren laguntzarekin poesiaren astea, musikaren-dantzaren-argiaren astea ere izan da. Asteazken sargaritsua Zumardi txikian Igor Estankonarekin, ostegun lasaia Mikelan Miren Agur Meaberekin, ostiral euritsuan Kirmen Uribe eta bere taldearen emanaldi bortiz-betarekin eta larunbateko gaueko hamarretako Niessengo tximinia argitu miragarriaren eta izarren eta hotzaren babespean GU-LAU poesia ikuskizuna eta festa. Igor, Miren Agur eta Kirmen orain agerira irten ari diren poeta berriak dira. Gu-Lau ikuskizunak gure gertuko inguruan dabiltzan poeta, musikari, txalapartari, dantzari, antzerkigile, koreografo, irudigile, kazetari, antolatzaile, txispas eta abarren zirko ikustezinaren tropa elkartu zituen ikuskizun anitz batean:

Argiaren eztanda, ikusezinaren doinua, izarren dantza... Espazio-denboran... Hitzean bilduak... poesia.



Zer da aste honetan buru-hausterik handiena ekarri diguna? Sinistezina baldin bazaizue ere, Gu-Lau ikuskizunerako argi-indarraren toma. Badakizue. Imprimakia, baimena, departamendu A, B departamenduko buru, ez didate ezer esan, paperik ez didate eman, guk ez dugu jaso, nik ez dakit ezer, mobilerara deitu, itzalita dago, non arraio dago, eztabaida semantikoa da "poner es poner: yo pongo una caja" eta "montar es montar: yo monto la toma de luz". Hortxe dago kokka: bai-



leiren kilimak
poesiaren astea 2002
maiatzaren 15tik 18ra

mikelazulo

gu lau
niessen plazan
maiatzak 16
22:00tan
Argia, musika, dantza, hitzaren sarran biturk. Espazio eta denbora, begirada, sentipena eta ekintzabide berriz zuzenak, irakur, emetak.
Festa.
Olerki festa.
Leku bat, une bat, lasa... ametsak elkarrekin destazeko.

zumardia
ESTANKONA, poeta
maiatzak 16
20:00tan

mikelazulo kultur elkartea
MIREN AGUR MEABERE, poeta
maiatzak 16
20:00tan

mikelazulo pasabidea
KIRMEN URIBE, poeta
maiatzak 17
22:00tan

Hitzaren argia

Lur emankor lehertuan
Ur garden uholdetsuan
Su gartu suntsitzailean
Haize leun burrunbatsuan

Hitzaren musika

Negu bildu gogorrean
Udaberriko apiril krudelean
Uda oparo sargaritsuan
Udazken ametsko dizdiratsuan

Hitzaren dantza

Geure bizitzako harreman eta bakarda-deetan.

mena izan edo ez izan; papera izan edo ez izan; departamendu A edo B izan edo ez izan; poner o montar edo alderantziz izan... Dena den zirrikitu burokratikoaren barna argi bat iluntasunean: minutu pare batean konpondu zen hilabete osoan zintzilik gelditu zena: argindarraren toma eszenatokitik metro gutxi batzuetara, errex errex hartua genuen.



BIHOTZ TAUPADAK

Labetik atera berri berria duzue. Espedizio kultural baten memoria. Argazkiak, kuadroak, marrazkiak, poesiak, txukun duin koloretan argi eta erakargarri: bihotz taupadak. Omenaldi bat, hangoei, urrutikoei, besteei. Hainbeste exigentzia, gerra, agindu, hesi, zitalkeria, engainu, explotazioari aurre eginez

Mikelak omenaldi bat eskeintzen du liburu honetan. Besteengan aurki dezakegu falta zaiguna: bihotz taupadari eusteko adorea. Liburuko lehen esaera hauxe da:

“Zuek dituzue erlojuak, baina diolak gara denboraren jabeak” (Oussouye herrian jasotakoa).

